



lazko Umore Horia txapelketa, Igeldoko jaietan.

La Txamak Igeldon eskainiko du bere lehen kontzertua

Bihar hasiko dira Igeldoko San Pedro jaiak, eta publiko zabalarentzako egitarau oparoa prestatu dute auzotarrek. Uztailaren 2ra arte, ez dira faltatuko kirol eta kultur ekitaldiak, kontzertuak, janari lehiaketak edo jolasak, beste hainbat jardueren artean.

✍ Sara Iburguren Etxeberria
📷 Beñat Parra Rodriguez

Tonttorro jai batzordea jo eta su aritu da azken asteotan Igeldoko sanpedroetako egitarauari azken ukituak ematen. Bihar hasi eta uztailaren 2ra arte, askotarikoz jarduerak izango dituzte publiko zabalarentzat, euskal kultura, kirola, musika eta beste hainbat jarduera uztartuz.

San Pedro eguna, Igeldoko jaietako

egun handia, larunbata izango da aurten, eta bigarrenenez, Desederatuen Bazkaria egingo dute. «Beste urteetan herri bazkaria egin badugu ere, aurten, Desederatuen Bazkaria egingo dugu, bigarrenenez. San Pedro eguna larunbata tokatzen denean, jendeak ohitura du familiako bazkariak egiteko, eta batzuk ohitura horretatik *desederatuta* geratzen gara

gure etxean. Beraz, aurten, paella lehiaketa bat egingo dugu, eta gero bingo musikatua antolatu dugu», azaldu du Leire Barrondok, Tonttorro jai batzordeko kideak.

Bestalde, aurreko urteetan hainbat kirolari aritu badira ere, aurtengoan, Igeldoko «gazteei eta ez hain gazteei» emango diete herri kirolean aritzeko aukera. «Herrian aizkolari bat dugu, Arkaitz Etxebeste, eta bera eta beste aizkolari bat enborrak moztzen arituko dira. Gainerako probetan, berriz, herritarrak arituko gara desafioan», adierazi du Barrondok.

Denentzako egitaraua

Jai batzordeko kidearen arabera, gustu desberdinetarako egitaraua prestatzen saiatzen dira Igeldon: «Azkenean, herri txikia gara, baina pluralak ere bagara. Adin tarte desberdinetako eta gustu ugaritako jendea bizi da Igeldon, eta pertsona bakoitzaren arabera, jarduera bat edo beste da garrantzitsuagoa». Aurten, hilaren 28a, ostirala, «nahiko indartsua» izango dela ziurtatu

du: «Lau talde ekarri ditugu, eta La Txamak bere lehenengo kontzertua Igeldon emango du». Datorren ostirala «oso musikala» geratu zaiela adierazi du, baina beste ekitaldi batzuentzako tartea ere izango da ordura arte. Asteburu honetan, kirolaz gozatzeko aukera ere izango da, bihar Igeldoko V. Haur Krosa egingo baitute goizean. Arratsaldean, berriz, helduen txanda izango da. Igandean, San Joan bezperarako egitaraua ere prestatu dute. Gainera, umeen eta gazteen eguna izango da uztaileen lean, eta hurrengo egunean, Santa Ixabel egunarekin emango diote amaiera jaiak.

San Pedro egunean, Desederatuen Bazkaria egingo dute Igeldon, eta sarrerak salgai daude Iko, Calonge eta Txapelan

Bertso saio musikatua

Beste berritasun bat ere badute aurten, izan ere, ekainaren 30ean, bertso saio musikatua antolatu dute. «Igande arratsaldean, beste urteetan, bertso saioa antolatzen genuen. Baina aurten, berritasun gisa, afalostean bertso saio musikatua prestatu dugu. Hainbeste berbena egitea gehiegi iruditzen zitzaigun, eta ostirala eta larunbata egun handiak izango direnez, igandean bertso saio musikatua jarri dugu herriko plazan, 22:00etan», azaldu du jai batzordekoak.

Horrela, Oihana Iguaran, Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendi arituko dira bertsoan. Musikariei dagokienez, Beñat Antxustegi *Txusta* (gitarra) eta Eneko Sierra (saxofoia) izango dira bertan, eta gai jartzaile lanetan, berriz, Iker Iriarte.

Gainera, ostiralean eta igandean ogitartekoak egongo dira salgai, eta larunbat eta astearte gauean, parillada egongo da. «Herriko tabernan parillada egoten da, eta jendeak oso gustura hartzen du», nabarmendu du Barrondok. ●



IGANDEA 23

11:30

Pala txapelketa finalak maziza zuriarekin eta teniseko pilotarekin.

17:00

Txaparroen prestaketa.

19:00

Arrain erakusketa eta zozketa.

19:30

Afari-merienda fajitekin.

22:00

San Joan gaueko koplarien irteera eta San Joan sua.

OSTIRALA 28

17:00

Ginkana mundiala, herriko gaztetxoentzat.

19:00

Antiguaband txaranga herrian zehar.

20:00

Ttonttorroren igoera.

21:00

Kontzertua Rukula taldearen eskutik.

22:30

Kontzertua Corrugators taldearen eskutik.


00:00

Kontzertua La Txama taldearen eskutik.

02:00

Kontzertua Herenegun taldearen eskutik.

LARUNBATA 29



10:30

Meza.

11:00

Hamaiketako Din-Din-era inguratzen den igeldotar ororentzat.

12:00

Herriarren arteko herri kirolak, herriko gazteak ez hain gazteen aurka. Aizkolariak: Arkaitz Etxebeste eta Ugaitz Mugertza

14:00

Desederatuen II. Bazkaria. Paella lehiaketa mundiala. Ondoren, bingo musikatua.

18:00

Toka eta bolo lehiaketa. Bitartean, Kalejira txikia, urezko zezena eta buruhandiekin.

19:00

Euskal dantza emanaldia plazan, herriko dantzariarekin.

22:00

Idi dema. Igeldo eta Bixkien idiak arituko dira elkarren aurka 1.600 kiloko harriarekin.

23:30

Kontzertua Trikidantz taldearen eskutik. Ondoren, Jo ta Txo eta La Fulana DJ-ak plazan.



ASTELEHENA 1



Haurren eguna

11:00

Ttonttorro Txikiren igoera.

11:30

Tailerrak.

13:30

Haurren bazkari herrikoia.

16:30

Puzgarriak.

Igeldotik barrena... ALT XORRAREN BILA!

18:00

Umeentzako merienda.

19:00

Kalejira txikia, urezko zezena eta buruhandiekin.

Gazteen eguna

11:00

Frontenis girotua.

14:30

Bazkari koloretsua eta ondoren, jolasak.

18:00

Karro poteoa.



IGANDEA 30

11:30

Patata tortilla lehiaketa.

12:30

6. Sanpedrotako oliba jaitziera txapelketa.

18:30

Kalejira txikia, urezko zezena eta buruhandiekin.

19:00

Gizonezkoen eskuzko pilota partida ikusgarria: Murua-Albeniz eta Apezetxea-Landa.

22:00

Berto-saio musikatua herriko plazan.



Gora
Igeldoko jaiak!

XABOI ARTISAUAK

Bertako lupulu
euskaldunarekin
modu artisauean eginga.

Lierni eta Gorka
IGELDO



670-29 64 12
euskal.lupulo@gmail.com

ASTEARTEA 2



11:00

Apar festa.

17:30


Santa Ixabel eskeari amaiera emango zaio plazan.

18:30

Plaza dantzak.

20:30

Kalejira txikia, urezko zezena eta buruhandiek.
Ondoren, Ttonttorro Txikiren jaitziera.



22:00

Zaldi dema. Talaia jatatxea eta Xanarta abereak arituko dira elkarren aurka 1.000 kiloko harriarekin.

23:30

Erromeria Izer eta Alabier trikitilariekin.

00:00

Aurresku Herrikoia eta Ttonttorren jaitziera.
Ondoren, Izer eta Alabierrekin emango diegu amaiera festei.



HERRI
KONTSEILUA



Gora sanpedroak!!!

**Ostiral eta larunbatean
giro ederra izango dugu!**

Kontzertuak:

**Rukula, Corrugators, La Txama,
Herenegun, Trikidantz eta DJak!**

Igande goizean autobusa Igeldotik
7:00 eta 8:00

